

/ Nabarmentzekoak

- > Algortako Geltokiko plazan komun publiko bat jartzeko lanak (2. or.)
- > Olatuan, azaroaren 6an, GetxoModa desfilea egingo da, Euskadin historia gehien duen ibiltokia (3. or.)
- > Udalak "Thinking Fadura" eta "Getxo Itsas Hub" aurkeztu ditu Novagob Berrikuntza Kongresuan (4. or.)



* Udalak aurrera darrai Klima eta Energiaren Tokiko Plana egiteko prozesuan (5. or.)

44. Aste Korala. Azaroaren 2ra arte, igandea, 19:30ean, Muxikebarrin. Sarrera: 5 euro/kontzertuko (abonua: 15€).

Hezetasuneko jaiak. Azaroak 7, ostirala, 17:00etan, jaien hasiera. Igandera arte, hilak 9, luzatuko dira.

A-
GENDA

Kirol Portuak eredu irekiago, jasangarriago eta parte-hartzaileago baterantz egiteko bidea abiarazi du

- Kirol Portuaren kudeaketa publikoa izango da 2026an, Abra Getxo Port (AGP) enpresa emakidadunak uko egin eta Kirol Portuaren Administrazio Kontseiluak ebazpena onartu ondoren.
- Trantsizio-aldi horretan, portuak martxan jarraituko du, eta bere zerbitzuak bermatuta egongo dira.

El Abra-Getxo Kirol Portua SA sozietatearen Administrazio Kontseiluak (SPDAG), Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak osatua, astelehenean onartu zuen Abra Getxo Port (AGP) egungo enpresa emakidadunak uko egitea Getxoko Kirol Portua ustiatzeko indarrean dagoen kontratuari. Enpresa ustiatzaileak portuaren kudeaketan trantsizio ordenatua bermatzeko konpromisoa hartu du, sozietatearen prentsa oharrean jasotzen denez.

Prozeduraren barruan, Sozietateak emakidari dagokion abal ekonomikoa exekutatu du, 1.550.453,70 euro. Uko egitea 2025eko abenduaren 31n gauzatu da, eta horrek egungo emakidaren amaiera ekarriko du eta beste etapa bati hasiera emango zaio.

Prozesu hori lege-esparruaren barruan eta gardentasun osoz garatu da, sozietateak adierazten duenaren arabera, zerbitzu publikoaren jarraitutasuna eta erabiltzaileentzako, negozioentzako eta portuari lotutako langileentzako egonkortasuna bermatzeko helburuarekin. 2026. urtean, trantsizio-plan bat garatuko da, baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide operatiboak berrantolatuzko, portuak bere zer-



Amaia Aguirre alkatea, Ivan Jimenez El Abra-Getxo SA Kirol Portua Sozietateko presidentearekin eta Sébastien Vauzelle Nazio Batuen 2030 Tokiko Koalizioko Idazkaritzako zuzendariarekin batera.

bitzuak berme osoz ematen jarraituko duela ziurtatuz.

Zentzu horretan, Amaia Agirrek eta Ivan Jimenezek adierazi zuten Bilboko Portuko Agintaritzakudeaketa eredu parte-hartzaile eta jasangarri baten diseinuan lanean ari dela, metropoli-estrategiarekin eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Horizon 2030 Agendarekin lerrotatuta. Proiektu honetan aktiboki parte hartuko dute Getxoko Udalak eta beste erakunde batzuek, eta herritarren ekarpenak jasotzeko entzute aktiboko eta partaidetzako prozesu bat abiaraztea aurreikusten da, Kirol Portuaren etorkizunerako ahalik eta proiekturik onena modu kolektiboan lantzeko helburuarekin.

Hiru mugarri eraldaketa sendo eta partekatuta baterako

Administrazio Kontseiluak uko egitea onartu eta SPDAGk etorkizunean kudeaketa bere gain hartu ondoren irekitzen den bidea modu egituratua planteatzen da.

1. Epe laburrean, erabiltzaileei, portuari lotutako negozioei eta portuan lan egiten duten pertsona guztiei funtsezko zerbitzuak ematen jarraituko dela bermatzen da. Trantsizio ordenatu bat eskainiko da, AGPk kudeaketa uztea erabaki ondoren.

2. Bigarren fase batean, epe ertainean, arreta SPDAGren kudeaketa zuzena sendotzean oinarrituko da, egonkortasunerako eta gardentasunerako bokazioarekin.

3. Epe luzera, portu-eredu berri bati ekingo zaio, Portuko Agintaritzak buru izango duena, espazio ireki, moderno, jasangarri eta Getxoko hiri-bizitzan erabat integratua izango dena. Udalerriaren ekonomia, kirol eta gizarte-eragile gisa duen eginkizuna indartuko duen portua, lankidetzak eta el-karrizketatik abiatuta eta Getxoko Udalaren eskutik.

Trantsizio-etapan zehar, SPDAGk portuaren funtzionamendua bermatuko du, getxotarrantzako espazio bizi, ireki eta

erabilgarri bihurtzeko bidean aurrera egiten den bitartean, jarduera nautikoa herritarren gozamenarekin, tokiko merkataritzarekin eta hiri-ingurunearekiko integrazioarekin konbinatzeko asmoz. Etapa hori elkarrizketa, gardentasuna eta Getxoko gizartearekiko konpromisoa oinarri hartuta eraikiko da.

Kirol Portuaren kudeaketari dagokionez, abendutik aurrera, Abra-Getxo Kirol Portuko Sozietate Publikoak hurrengo urratsen berri emango du sozietatearen webgunearen bidez eta kapitaintza-bulegoetan (eraikin zuria), bulegoko ohiko ordutegian. Gaur egun, erakundea giza baliabideak eta baliabide materialak pixkanaka berrantolatzen ari da, kudeaketa kaudimen eta berme osoz bere gain hartzeko helburuarekin. Egokitzapen-fase hori ezinbestekoa da kudeaketa-eredu sendo eta ordenatu bat eraikitzeko. Gainera, sozietatearen webgunean ohiko galderak eta erantzunak biltzen dituen atal espezifikoa bat prestatu da, zalantza nagusiak argitzeko eta herritarrei, negozioei eta portuari lotutako eragileei informazioa emateko.

Amaia Agirreraren hitzetan, "urrats honek portua erabiltzen dutenen lasaitasuna bermatzea eta zerbitzuaren jarraitutasuna ziurtatzea ahalbidetzen digu. Erakundeok elkarrekin lan egiten dugu guztiona dena babesteko eta Kirol Portuari etorkizun egonkor eta partekatuta bat eskaintzeko. Getxok ilusioz beteriko etapa bat irekitzen du orain: portu irekiago, iraunkorrago eta integratua gerozko erakitzeko, getxotar guztiak harro egoteko moduko portua".

Entzute prozesua: <https://labur.eus/lccycsyb>



URRIAK 30 OSTEGUNA

Errege Kopa Gobelan. 20:00etan, futboleko Errege Kopako kanporaketa CD Getxo eta CD Alavésen artean, azkenean, Gobelan.

44. Aste Korala. 19:30ean, Muxikebarrin, Sonat Vox (Alemania). Sarrera: 5 euro (abonua: 15 euro).

Hitzaldia. 18:00etan, Gurari Emakumeen Etxean, "Testamentos, Herencias, Regímenes Matrimoniales y Donaciones". Hizlaria: Olga Macía abokatua. Sarrera librea (edukiera mugatua). Antolatzaile: Gizatiar Romo-Areetako emakumeen elkarte soziokulturala.

URRIAK 31 OSTIRALA

44. Aste Korala. 19:30ean, Muxikebarrin, Yumecan Choir (Japonia). Sarrera: 5 euro.

AZAROAK 1 LARUNBATA

44. Aste Korala. 19:30ean, Muxikebarrin, Getxoko Eskuz Esku Abesbatzaren "Con nombre de mujer" emanaldia, Biotz Alai eta Lilura Abesbatzaren laguntzarekin. Sarrera: 5 euro.

AZAROAK 2 IGANDEA

44. Aste Korala. 19:30ean, Muxikebarrin, Balsis Youth Choir (Letonia). Sarrera: 5 euro.

Kontzertua. 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokiaren, Pergolesiren "Stabat mater", honako hauekin: Patricia Sésar (sopranoa), Susana Crespo (mezzosopranoa) eta Pedro Guallar (organista). Sarrera librea. Antolatzaile: Asociación de Amigas y Amigos del Organo Merklín elkarte.

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Tony, Shelly y la linterna mágica" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

AZAROAK 3 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "La vivienda ¿soluciones?". Hizlariak: Pedro Jauregui (Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuorde ohia eta Lurzoru zuzendaria) eta Natxo Tejerina (abokatua eta Hirigintza irakaslea). <https://sinopeblog.wordpress.com/>

AZAROAK 5 ASTEAZKENA

Dokumental zikloa. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Manolo Kabezabolo", J. Alberto Andrés Lacasta egilearen eskutik. Doan.

AZAROAK 6 OSTEGUNA

Erakusketa. Azaroaren 26ra arte, Romo Kultur Etxean, Eider Morenoren "Apurtu" (2025eko Getxo Arte beka). Orduetgia: 08:30-21:30h, astelehene ostiralera, eta 09:30-20:30h, asteburu eta jaiegunetan.

Zinemabarrin. 19:00h, Muxikebarrin, Miguel Gomezen "Grand Tour"-en emanaldia (jatorrizko bertsioa azpitiituleekin). 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3,50 euro.

Zine foruma. Cultura y Sociedad. Un espacio de diálogo. 18:00h, Romo Kultur Etxean, Terrence Malicken "El árbol de la vida"-ren emanaldia. Sarrera doan (lekua erreserbatzeko: cinforumgetxo@icmediaeuskadi.es). Antolatzailea: iCmedia Euskadi.

AZAROAK 7 OSTIRALA

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica". Hizlaria: Diego de Amigo, biolinista, konpositore garaikidea eta Barakaldo eta Gasteizko konterbatorioetako irakaslea. www.allantica.org

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, "Bidasoatik harago" Xabier Solano eta Jon Garmendia 'Txuria'-rekin. Sarrera: 10€.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Jon Garaño eta Aitor Arregiren "Aundiya". 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3,50 euro.

Hezetasuneko jaiak. 17:00etan, jaien hasiera. 18:00etan diskofesta DJ Oihan Vegarekin eta, ondoren, txapel jaurtiketa txapelketa, karaokea... 23:00etan Bidean Erromeriaren kontzertua. Info: @hezetasuna_jaiak

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten senideen VI. Topaketa. 12:00etan, Romo Kultur Etxean. Udak antolatuta. Izenematea urriaren 31ra arte: getxonzaindu@getxo.eus/683 193 092.

AZAROAK 8 LARUNBATA

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Eliades Ochoa. Sarrera: 25 euro.

Dantza Plaza. 19:30ean, San Nikolas Ikastolan (Hezetasuna-Algorta), erromeria herrikoia bertako Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeekin. Parte-hartze irekia.

Hezetasuneko jaiak. 11:00etatik aurrera, igel eta tiragoma txapelketa, puzgarriak, haurrentzako tailerrak, marrakzi lehiaketa... 16:30etik aurrera, musika bingoa, aurrekulari txapelketa, elektroxtaranga, txotxongiloak... 20:30ean fandango eta arin-arin txapelketa eta 22:30ean Mairi eta Parabellum taldeen kontzertua. Info: @hezetasuna_jaiak

AZAROAK 9 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Pirata arratoia". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50 euro.

Igandeko haur zinea. 17:00etan, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, "Mary superchef"-en proiektzioa (gaztelaniaz). Adin guztientzat (bereziki umeentzat). Sarrera: 2,50 euro.

Haurrak-Familiak. Antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Nire beldurrik maiteenak" komedia, Producciones Maestras konpainiarekin. Sarrera: 8 euro.

Hezetasuneko jaiak. 11:00etatik aurrera, Villamonteko krosa, lapikoko lehiaketa, azoka, dantza alardea... 17:30etik aurrera, karate erakustaldia (haurrak eta helduak), Mariatxi Humberto Luisen kontzertua, txokolatada... 20:00etan txeritxoia erre eta jaien amaiera. Info: @hezetasuna_jaiak

Algortako Geltokiko plazan komun publiko bat jartzeko lanak

Algortako Geltokiko plazan komun publiko bat izango da laster, hori ipintzeko lanak duela egun batzuk hasi baitira. Ekipamendu horren ondoren etorriko dira Portu Zaharreko eta Santa Anako komunak ere, alde zurretik iragarri bezala. Hirurak 2025eko Aurrekontu Parte-hartzaileen barruan daude, baita Udal Gobernuak eta PPK aurtengo Udalaren Aurrekontu Orokorra babesteko sinatutako akordioaren barruan ere. Hiru komunak kostua, guztira, 246.840 eu-



rokoa da (BEZa barne).


Hirurak azaroaren amaieratik abenduaren lehen hamabostaldira bitartean egongo dira prest. Geltokiko plaza-komun modulu bikoitza izan-

go da, kanpoko pixatokitik gabea; Portu Zaharrekoa ere bikoitza, kanpoko pixatokiarekin; eta Santa Anakoa, ermitaren inguruan, modulu sinplea izango da.

Miramar kalea birmoldatzeko lanen 3. fasea hasi da

Algortako Miramar kalea birmoldatzeko eta bertan oinezkoek lehentasuna izango duten plataforma bakarra egiteko proiektuaren hiru garren fasea abian da. Jarretuak begiratokiaren inguruan egiten ari da, kalearen azken zatian. Izan ere, irisgarritasunaren araudia betetzen ez duten espaloiak daude eta horregatik, espaloiak handituko dira; eta, horrez

gain, begiratokiaren hegialaren egitura zati bat birgaituko da. Lanak egiteko epea 11 astekoa da eta obraren fase batzuetan zirkulazioa moztu beharko da kale hondoan. Ondorioz, ibilgailuak Urimendi kaletik Algorta etorbiderantz atera beharko dira. Obrek aurrera egin ahala hartzen diren neurriak behar bezala jakinaraziko dira.



Salsiduko arrapalak konpontzeko lanean ari dira

Udaleko Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuen Arloa lanean ari da Algortako Salsiduko arrapalak konpontzeko. Bertan diren berderatzi arrapaletatik hiru martxan daude jada, eta gainerako arrapaletan esku hartzen jarraitzen dute, zerbitzua ahal bezain laster berriz jartzen joateko, arrapala bakoitzean egin behar diren konponketen konplexutasunaren arabera.



Bisita Rosa Fernández Sarmientori bere 100 urtebetetzeagatik

Keltse Eiguren alkateordeak Rosa Fernández Sarmiento auzokidea bisitatu du aste honetan, Algortako etxebizitzan, 100 urte bete dituela eta. Lugoko Ribadeon jaioa, duela 45 urtez geroztik Getxoko auzokidea da. Emakumeak alaba bat, bi biloba eta bost birbiloba ditu. Udal ordezkariak ohiko Aixerrrotaren oroigarria eta lore sorta bat eman dizkio udalerriko bizilagunari.

Bizkaia Zubiaren zerbitzua aldi baterako etengo da

Ontzitzoari eusten dioten 18 kableak aldatzeko obrak direla-eta, Bizkaia Zubiak zerbitzua eten beharko du astelehene, azaroak 3, 06:00etatik, azaroaren 22ra arte, larunbata, egun horretan 06:00etan berriz hasiko baita.

Hala ere, baliteke egun horiek aldatzea eguraldi txarra dela-eta, eta hori behar bezala jakinaraziko da Zubiaren kanal ofizialen bidez.

Txalupa zerbitzua indartuko da bi ontzirekin, 06:00etatik 22:00etara astelehene ostiralera; 08:00etatik 22:00etara larunbatetan; eta 09:00etatik 22:00etara igandeetan.

Halaber, Bizkaia Zubiak minibus zerbitzua jarriko du gauerdian, igandetik ostiralera (ez baitago metro zerbitzurik), ordutegi hauekin: 00:00h, irteera Getxotik; 00:30h irteera Portugaletetik; 01:00h beste irteera bat Getxotik; eta 01:30h azken irteera Portugaletetik. Beharrezkoa izango da Zubiko txartel-makinetan tiketa alde zurretik erostea.

Izenematea ludotekarako

Azaroaren 3tik 16ra zabalik egongo da Kukupraka ludotekaren Gabonetarako zerbitzurako izenematea. Txandak abenduaren 22tik 26ra eta abenduaren 29tik urtarrilaren 2ra izango dira, Romo ikastetxean, 10:30etik 13:30era, 2014tik 2020ra jaiotako umeentzat. Azaroaren 24ean argitaratuko dira onartutakoekin behin behineko zerrendak.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erakundeetako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Olatuan, azaroaren 6an, GetxoModa desfilea egingo da, Euskadin historia gehien duen ibiltokia


Olatuan, gurutzaontzien kaiko itsas estazioan, GetxoModaren desfilea egingo da azaroaren 6an, asteazkena, 20:00etan. GetxoEnpresak antolatu du, eta, besteak beste, Udalaren laguntzarekin, 38. edizioa bete du aurten, eta Euskadin historia gehien duen pasabidea bihurtu da. Getxo lehen mailako helmuga komertzial, turistiko eta kultural gisa bultzatzen duen ekimena da, non ingurunearen edertasunak bat egiten duen estatuan eta nazioartean proiektzioa duten diseinatzaile, saltoki eta enpresen talentuarekin.

Desfilea

Getxoko moda, bitxigintza, optika eta estetikako 27 saltoki inguruk parte hartuko dute edizio honetan, tokiko merkataritza sarearen indarra eta kalitatearekin eta hurbiltasunarekin duten konpromisoa berretsiz.

Charo Álvarez, Borja Hernández (BHUGETXO), Txaro Rodríguez eta Luis Uribebarria diseinatzaileek ere parte hartuko dute ekitaldian, besteak beste. Bildumen bidez, GetxoModak euskal talentuaren aniztasuna erakutsiko du, non artisautza, berrikuntza eta emozioa proposamen paregabeetan elkartzen diren.

Miriam Ocariz diseinatzaileari omenaldia egingo zaio. Miriam euskal diseinuaren figura emblematikoa da, eta aitzindaria artearen, modaren eta ehun-esperimentazioaren arteko fusioan. Charo Izquierdo kazetaria eta komunikazioaren, modaren eta jasangarritasunaren erreferentea da, baita Mariano Moreno diseinatzailea ere, eztei unibertsoan eta goi mailako



joskintzan duen ikuspegi berritzaileatik ezaguna.

Hitzorduan zehar bertaratzen direnek Basque Biodesign Center-en esku arropa paseaz gozatu ahal izango dute. Gueñesen dago, eta artea, zientzia eta teknologia uztartzen dituen bio-joskintzako eta diseinu jasangarriko Europako

erreferentziatzko gunea da. *Biokinesis* bildumaren bidez, zentroak biologia eta diseinua batuko ditu, mikelioa, zelulosa eta algak bezalako biomaterialak erabiliz. Emaizta, janzteaz gain, ingurunearekin hitz egiten duten piezak dira. Desfilerako gonbidapenak saltokietan eta parte hartzen duten sinaduretan eskuratu ahal izango dira.

Getxoarteren edizio berria

Azaroan, Getxoarte programaren edizio berri bati esker sortzaile getxotarren sormen talentua bultzatzen duten hainbat ekimen hartuko ditu gure udalerrriak. Hainbat ekimenen bidez eta hainbat esparrutan, herritarrengana hurbilduko dute beren lana.

Hala, Miren Begoñe Bilbaok eta Ibon Garazargazak komisariatutako 2025eko proposamenak, Getxo Kulturarekin lankidetzan, erakusketa bat, bi pintura lehiaketa, eskola tailerrak eta publikoarekiko bitartekaritza jardura desberdinak hartuko ditu, hala nola hitzaldiak, performanceak eta hitzaldiak, besteak beste, ahaztu gabe *Artista bat auzoan* proiektua, sare sozialetan hainbat eta hainbat artistaren lana eta sormen prozesuak erakusten dituen.

Getxoarte eskoletan programak ikasleekin egindako sei prestakuntza-saio eskainiko ditu hainbat ikastetxetan (Artaza-Romo, Zubileta, San Nikolas ikastola, Aixerrota eta Azkorri), hainbat diziplina erabiliz sormena, hausnarketa kritikoa eta gazteek prozesu kulturaletan duten protagonismoa sustatzeko.

Getxoartek hiru egoitza-beka eman dizkie aurten Sonia Bouso, María Aztiria eta Eider Moreno artistei, eta horietako bakoitzak 5.000 euroko zuzkidura du. Azken horrek, gainera, ekoizpen-eta erakusketa-beka bat jasoko du, 10.000 eurokoa, azaroaren 6tik 26ra Romo Kultur Exean erakusketa bat egiteko.



Artaza-Romo institutuaren "Un buen rato" film laburra sarituta Zinema Ikusezinaren Jaialdian

Sara Fernández Barajasek, Jorlan Sebastián Ordoñezek eta Miguel Ángel Angulo Villadak, (argazkian ezkerretik eskumara, eta Mihaela Jilavu Hezkuntza eta Gazteriako zinegotziarekin), aurreko astean, *Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia, Film Sozialak* izeneko zinemaldiaren *Gazteen Klaketa Saria* jaso zuten *Un buen rato* film laburratik. Artaza-Romo Institutuak egindako fikziozko film labur bat da, bi gazteren drogen kontsumoari buruzkoa, 5 minutuko iraupenarekin eta gaztelaniaz. Institutuak duela 12 urtez geroztik kolaboratzen du KCD GGKEak, besteak beste, Udalaren laguntzarekin, antolatzen duen Jaialdiarekin. Aipatutako film laburrerako saria 1.000 eurokoa izan da.



"Manolo Kabezabolo", Manuel Méndezen bizitzari buruzko dokumental musikala


Azaroaren 5ean, asteazkena, 19:00etan, José Alberto Andrés Lacasta zuzendariaren *Manolo Kabezabolo* dokumentala proiektatuko da Romo Kultur Etxean. Lan honek Manuel Méndez *Manolo Kabezabolo*-ren bizitza jorratzen du. Estatuan punkaren ikono bat da, 40 urte baino gehiagoko ibilbidea duena, eta bere muturreko bizitzak, espiritu borrokariak eta kausa sozialekiko konpromisoak pertsona bakar bihurtu dute. Gizona mitoaren atzean aurkitzen da, eta amorrua diskurtso eta zarata babesleku bihurtu zituen pertsonaia baten eraikuntza aztertzen da. Karikaturatik urrun, filmak bere argitasun deserosoa eta ironia basatia aztertzen ditu.

“Getxon gozatzeko Planak”

Getxoko enpresek azaroaren 3tik 14ra arteko epea dute, nahi izanez gero, beraien esperientzien eta jardura turistikoaren eskaintza txertatzeko *Getxon gozatzeko Planak 2026* egitasmoan.

Helburua da kontsumitzaileei eta merkaturatze-agentziei Getxon egin daitezkeen turismo-esperientzien eskaintza osoa hurbiltzea. Alde batetik, baliabide ezagunenez gain, beste plan batzuk proposatzea, “xarmadunak”, Getxo dagoeneko ezagutzen duten bisitari eta txangozaleak anima daitezten udalerrira berriro etortzera; eta bestetik, udalerrira etorritako turista eta bisitarien egonaldia luzatzea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, bidali posta getxoplanak@getxo.eus helbidera.



Udalak “Thinking Fadura” eta “Getxo Itsas Hub” aurkeztu ditu Novagob Berrikuntza Kongresuan

Udalak Berrikuntza Publikoari buruzko Novagob 2025 Kongresuan parte hartu du, aste honetan, Bartzelonan. Bertan, Getxo Kirolak-ek eta Ekonomia Sustapena Arloak, hurrenez hurren, bultzatutako bi esperientzia berritzaile aurkeztuko ditu: *Thinking Fadura* eta *Getxo Itsas Hub*. Novagob Espainiako eta Latinoamerikako administrazio publikoko berrikuntzari buruzko topaketarik handiena da, eta sektore publikoko 1.000 profesional inguruk hartuko dute parte, gai hauekin lotutako esperientziak ezagutzeko eta ez-

tabaidatzeko: berrikuntza, eraldaketa digitala eta adimen artifiziala, pertsonen talentua sektore publikoan, administrazio erraza, gobernu ona eta administrazio sendoa.

Thinking Fadura

Getxo Kirolak-eko ordezkariak, Castellóko, Zaragozako eta Estatu Batuetako herritarren partaide-tzarako teknikari eta ikertzaileekin batera, *Herritarrak Gobernantza Publikoan inplikatur* mahai-inguruan parte hartu zuten, eta *Thinking Fadura* proiektua aurkeztu zuten, parke publiko bihurtzeko eta Fadurako kiroldegia kanpoko aldeko instalazioak hobetzeko. Kongresuaren antolakuntzak ekimen hori aukeratu zuen berrikuntza publikoaz eta gobernu onaz hitz egiteko erreferentziazko proiektutzat. Proiektu hau 2018an hasi zen diseinatzen eta, orain arte, 2.000 pertsona inguruk hartu dute parte eta beste hainbeste ekarpen jaso dira. Dagoeneko ikus daitezke lehen emaitzak, kirol eremu gehienak itxita eta TikiToki Zentroa gizarte-gunea eraikita.

Getxo Itsas Hub

Getxolaneko ordezkariak, bere aldetik, A Coruñaiko, Bartzelonako eta Kanaria Handiko Las Palmaseko udaletako partaideekin batera, *Berrikuntza urdina: kostaldeko hirietako esperientziak* mahai-inguruan parte hartu zuten.

Getxo Sormen Hub-en espazioak eskatzea

Azaroaren 30era arte egongo da zabalik Algortako Urgull Zentroan dagoen Getxo Sormen Hub udalerriko kultura eta sormen sektoreko lehen ekintzailetza gunean lan espazioak okupatzeko eskaera egiteko epea. Zentro horrek 194m²-ko lokal bat hartzen du, 22 lan-gune ditu eta sektorea profesionalizatzeko ekintzak ere eskaintzen ditu, hala nola aholkularitza, programak eta topaketak.

Deialdi berri honetan aldaketak egin dira denbora horretan osatatuta egon diren proiektuen beharretara egokitzeko eta, era berean, proiektuen txandakatzea sustatzeko eta aukera berriak eskaintzeko.

Lehentasuna emango zaie Getxon erroldatutako pertsonen proiektuei; inoiz udal-espaziorik laga ez duten pertsonak osatutako proiektuei; eta proiektua ekintzailetza-Hubs zentroetako batean egon bada, lehentasuna emango zaie denbora gutxiago eman dutenei. Era berean, lehentasuna emango zaie txandakako lanpostuetan egon diren eta orain lanpostu finkoa eskatzen duten proiektuei.

Proiektu bakoitzaren balorazioaren emaitzak (kalitatea, bideragarritasuna, berrikuntza, proiektuaren buru diren pertsonen gaikuntza profesionala, emakumeek eta 30 urtetik beherako gazteek gidatutako proiektuak, diseinuaren, musikaren eta ikus-entzunezkoen sektorekoak izatea...) zehaztuko du espazioa aukeratzeko txanda.



Espazioen lagapena bi urterako ezarriko da (2026ko otsailaren 1etik aurrera), beste bi urtez luzatzeko aukerarekin (2022an urtebete luzatzeko aukera izan zen), eta gehienez bi lanpostu enpresa proiektu bakoitzeko.

Espazioen eskaerak Administra-

zio Elektronikoko Bulegoaren (OAE) bidez egingo dira (<http://www.getxo.eus>), *Getxo Sormen Hub 2026* Eskaera oharpen-erduaren bidez. Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan Ekonomia Sustapenaren arloarekin (telefonoa: 94 466 01 40) edo getxosormenhub@getxo.eus

Belako CDCP Trofeoaren III. edizioa

III. Carmen Parra Hertz Klinikako Trofeoa (CDCP) Abrako uretan egingo da hiru egunetan, azaroaren 1, 15 eta 29an. Marítimo del Abra (RCMA-RSC) Itsas Klubaren proben egutegi zabalak abenduan amaitzen den bela denboraldiaren azken zatiari ekingo dio. Azken aurreko proba honetan, Estropada, Gurtzero eta J80 motako ontziek parte hartzen dute. Txapelketak, Aretako Kluba antolatzen dituen gainerako sari sozialetan bezala, Estropada

Batzordeak aurreikusitako ibilbideetan tripulazioen erregularitasuna saritzen du. Txapelketako hiru egunetan, irteera 11:00etan izango da J80entzat eta 12:00etan gainerako klaseentzat.



Udalak aurrera darrai Klima eta Energiaren Tokiko Plana egiteko prozesuan

Udalak udalerriko Klimaren eta Energiaren Tokiko Plana (KETP) prestatzen jarraitzen du, trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren esparruetako plangintzarako tresna nagusia izango dena. Planak aukera emango du beharrezko neurriak ezartzeko Udalaren eskumenen esparruan, eraginkortasun energetikoa sustatzeko eta iturri berriztagarriak ezartzeko, berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko, pobrezia energetikoaren aurkako borrokarako eta Getxo testuinguru klimatiko berrira egokitzeko.



Testuinguru horretan, duela egun batzuk Iñigo Urkitza Ingurumen zinegotziak oposizioko taldeei aurkeztu zizkien orain arte egingako aurrerapenak eta datozen asteetarako aurreikusitako parte-hartze ekintzen egutegia. Horrela, programatutako hurrengo hitzorduen artean, Ingurumen Foroa dago. Azaroaren 11n (asteartea) egingo da, 19:00etan, Santa Klara Jauregian, eta klimaren eta energiaren sektoreko adituak eta profesionalak bilduko ditu. Topaketa tekniko hau Plana ikuspegi espezializatuekin kontrastatzeko eta aberasteko prozesuaren parte da.

Gainera, azaroaren 13an (osteguna) ate irekien jardunaldi bat egingo da, eta bertan Plana idatzi duen enpresak parte hartuko du. KETPren eduki nagusiak azalduko dira, eta ekarpenak jasotzeko gune bat irekiko da. Lekua, ordutegia eta izena emateko xehetasunak Udalaren ohiko kanalen bidez jakinaraziko dira laster.

Era berean, herritarrek Getxoko klima-aldaketaren pertzepzioari buruzko online inkesta baten bidez parte har dezakete prozesuan. Inkesta hau, 14 galderaz osatua, azaroaren 4tik 18ra bitartean bete ahal izango da eta udalaren webgunean edo zuzenean esteka honetan egongo da eskuragarri: <https://labur.eus/oxuv9k6e>

Lortutako emaitzak planaren edukian aztertu eta txertatuko dira.

Energia- eta klima diagnostikoa
Orain arte, lan teknikoari esker, udalerraren energia eta klima-diagnostikoa egin ahal izan da. Datu aipagarrien artean, hurrengoak daude:

- Udalaren energia-kontsumoa %16,7 murriztu da 2014 eta 2023 artean, eraikinetan, argiteria publikoan eta udal-flotan aplikatutako neurriari esker.

- Udal energia-kontsumoari lotutako berotegi-efektuko gasen (BEG) isurketak ia %50 murriztu dira aldi berean.

- Udalerrri-mailan, emisio guztiak %30 murriztu dira 2014tik, eta garraioa izan da emisio-sektore nagusia, bizitegi-sektorea eta zerbitzuak atzetik dituela.

- Gainera, Getxorako klima-arrisku nagusiak identifikatu dira: bero-boladak, uholdeak, itsas mailaren igoera eta lehortek. Horri esker, egokitzapen-neu-

rriak lehenetsi ahal izango dira. *“Plan honek herritarren ahotsa jasotzea, udalerriko errealitateko egokitzeta eta haien beharrei erantzutea nahi dugu. Horregatik, analisi teknikoa eta entzute aktiboa uztartzen dituen prozesua diseinatu dugu”*, adierazi du Iñigo Urkitza zinegotziak. Urkitzak aurreikusitako ekintzetan parte hartzeko gonbitea luzatu die herritarrei.

Beste plan batzuk

Horrela, Udalak Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Legearen eskakizuna beteko du, eta

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoaren Legean xedatutakoa txertatuko da jasangarritasun energetikoari dagokionez. Horrekin lotuta, eta proiektu honen beraren esparruan, Udala udal eraikinetarako, argiteria publikorako eta parke mugikorretarako Jarduketa Energetikoaren Plana eta Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana egiten ari da.

Aldez aurretik, Klima Aldaketara Egokitzeko Plana egin zuen, eta hori ere KETPn integratuko da.



Gabonetako argien muntaketa

Gabonetako elementu apaingarriak herrian instalatzeko aurretiazko lanek azaro osoan zehar jarraituko dute. Argien egitura muntatzeko lehenengo metalezko zutabeak Areetako eta Algortako hainbat lekutan jarri ondoren, astelehen honetatik aurrera, hilak 3, eta aste osoan zehar, fatxaden arteko lokarriak, kableak eta linea elektrikoak instalatuko dira. Eta hilaren 10etik 27ra bitartean, girlandak zuhaitzetan muntatuko dira, eta Gabonetako motiboak farola, pergola, arku, fatxada eta izeien gainean jarriko dira. Aurreko urteetako emanaldiez gain, aurten zuhaitzen girlandak eta motiboak muntatuko dira farola eta pergoletan, Romoko Kresaltzu eta Santa Eugenia kaleetan, eta Algortako Ollarretxe, Salsidu, Ka-

sune, Villaondoeta, Areneazpi eta Iparbide kaleetan.

Lan horiek trafikoari eragingo diote kasu batzuetan, eta eragin horiek behar bezala seinaleztatuko dira.

Iaz bezala, eta energia aurrezteko ezarritako jarraibideei jarraituz, argiztapenaren denbora murriztuko da, hau da, argiak pizteko ordutegi osoaren %25. Ordutegia, beraz, honako hau izango da: igandetik asteazkenera, 18:00etatik 23:00etara; ostegunetik larunbatera, 18:00etatik 24:00etara; eta urtarrilaren 24an, 31n eta 5ean, 18:00etatik 02:00etara.

Argiztapenaren kostua 284.913 euro da (BEZa barne).

Agur, Juan Carlos Sola

28 urtez Desgaitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileko (Fekoor) zuzendari izandakoa, Juan Carlos Sola, Getxoko bizilaguna, joan den astean hil zen, erakundeak berak prentsa oharrean jakinarazi zuenez, bere doluminak ematearekin batera.

Gizartea eraldatzeko eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzeko funtsezko pertsona bat izan zen Sola, eta hainbat erakunde eta instituziok haren aholkularitza bilatu zuten beren hirietako irisgarritasuna hobetzeko proiektuak egiteko, besteak beste, Getxokoa.

Bilbon jaio zen duela 70 urte, eta 1984an izandako zirkulazio-istripu batek markatu zuen bere bizitza eta elkarre-mugimenduarrekiko konpromisoa. Fekoor-era iritsi zenetik, Solak desgaitasunaren ikuspegi berritzailea bultzatu zuen, aukera berdintasunaren eta bizitza independentearen alde eginez. Goian bego!



Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, KULTURA-AGERTOKIA



Getxo kultura-erreferentia da, kontuan izanda gure udalerrian antolatzen diren programazioak, Getxon sortzen diren proposamenak eta gure eszenatokiak baliokoak direla. Getxoko kultura-arloan egiten jarraitzen dugun lana askotan isila eta apala da, baina lan horri esker, maila goreneko kultura-agenda eta programa dauzkagu. Hala da, bai, errealitatearen isla da hori.

Duela egun gutxi amaitu zen Muxikebarrin Getxo Eszena 2025, Arte Eszenikoen Jardunaldien 43. edizioa, zeinak hilabete baino denbora gutxiagoan hamabost ikuskizun bikain ekarri dituen, hala nola antzerkia, dantza, musika, haurrentzako proposamenak, zirkua... Horrekin batera, maila handiko ohiko programazio osoa dago Muxikebarrin, Romo Kultur Etxean, Villamonten eta udal-liburutegietan. Nabarmenezkoa da horietan egiten duten lan handia. Getxoko ohiko kultura-agendak, «arrun-

tak», azaroaren lehen, hain zuzen ere, Eskuz Esku Getxoko abesbatzaren ekoizpena eskainiko digu, **EMAKUME-IZENAREKIN**, Getxoko Aste Korralaren 44. edizioaren baitan.

EAJ-PNVk Getxoko auzokideekin daukan konpromisoan, abangoardia eta sormen-industriekin, kultura-eragileekin, kolektiboekin eta elkarteekin egiten dugun lana aipatu genuen, horiek baitira Getxo amets eta ilusio handien iturri izatearen berme. Eta, orain, benetako konpromiso horren adibide, Getxoko kultura-sare osoarentzat zabalik dauden hiru ekimen nabarmenduko ditugu:

- Ikusizko Arteetako Erakusketen 4. deialdia, azaroaren 14ra arte zabalik egongo dena eta askotariko diziplinetako sortzaileei zuzenduta, hala nola margolaritza, eskultura, bideoarte, argazkilaritza, instalazioak...
- Juana Bizkarra Arte Eszenikoen Sorkun-

tza Egonaldiaren 6. edizioa. Emakume-izena daukan deialdiak ikuskizun bat ekoizteko eta muntatzeko 10.500 euroko dirulaguntza eta egonaldia eskaintzen ditu. Proiektuak aurkezteko epea abenduaren lehen amaituko da.

• Hirugarren adibidea *Emakumeak eszenan* emakumeen antzerki-zirkuitua da. Azaroan Getxora itzuliko da, eta emakumeen antzerki-konpainia amateurrek haien ekoizpenak aurkezteko espazioa izango dute. Romo Kultur Etxea izango da sei antzerki-konpainia hartuko dituen oholtza; horietako lehenengoa Sopolako Kalamua Antzerkia konpainia izango da, azaroaren 23an, *Alas de Hierro* antzezlanarekin.

Konpromisoa kulturarekin, tradizioarekin eta abangoardiarekin; EAJ-PNVren konpromisoa Getxoko kulturarekin, kultura-sorkuntzarekin eta gure elkarte- eta kultura-sare handiaren ekimenekin, maila goreneko eszenatokitian.



GETXON TXAKURRENTZAKO HILERRIA SORTZEA

Proposamen bat aurkezten dugu Udalak azertu dezan **hildako maskotak gogoratzeko eta agurtzeko espazio publikoa** sortzeko aukera. Ekimenaren xedea da auzokideek toki sinboliko eta duina izatea etxeko animaliak omentzeko, etxe askotan familiako beste kideak hartzen baitituzte. Azken urteetan, maskotak dituzten familien kopurua nabarmen handitu da eta hori pertsonen eta haien animalien arteko lotura afektiboaren garrantziaren adierazgarri da. Dena den, **Getxok ez dauka animalia galdu**

eta gero oroimen-keinua egiteko **toki aproposik**. Gure proposamena da Udalak **proiektuaren bideragarritasuna, kokapena eta kudeaketa-eredu aproposena** azertu ditzala, helburua baita espazio hori getxotarrantzat topagune eta oroimenerako toki bihurtu dadin aukera posible desberdinak kontuan izatea. Ekimenarekin, **maskoten garrantzi emozionala eta soziala aitortu** nahi dugu, eta pertsonen eta animalien arteko bizikidetzaren enpatikoagoa eta errespetutsuagoa sustatu.



GETXOKO KIROL PORTUAREN KUDEAKETA ARGITZEKO ETA ETORKIZUNA BERMATZEKO NEURRIAK ESKATU DITUGU

Azken hilabeteetan ugariak eta kezkarriak izan dira Getxoko Kirol Portuaren inguruko albisteak. Portuaren kudeaketaren ardura zuen enpresak kontratuari uko egiteak egoera larriagotu du eta portuaren etorkizunari buruzko zalantza ugari sortu ditu. Egoera hau ez da berria, izan ere, urteak daramatza Getxoko Kirol Portuak kudeaketa-arazo, gardentasun-falta eta mantentze-lan eskasak pilatzen. Horregatik, gure udal taldeak mozio bat aurkeztu du Udalean, egoera hau argitzeko eta portuaren etorkizuna bermatzeko neurriak eskatzeko.

Egoera ikusita, gure mozioaren bidez proposatu dugu El Abra-Getxo Kirol Portua SAREN udal-jabetzaren zatia Eusko Jaurlaritzari transferitzea, haren bidez bilatu dadin irtenbide egonkor eta eraginkorra. Aldi berean, transferentzia horretan bermatu behar da gaur egun piraguismo eta arraun taldeek erabiltzen dituzten eraikinen etorkizuneko erabilera eta jarduna, inolaz ere kaltetu gabe.

Gure ustez, ezin da onartu espazio publiko baten kudeaketa hainbesteko ezjakintasuna eta koordinazio falta izatea. Horregatik aste honetan bertan El Abra-

-Getxo Kirol Portua SAREN Administrazio Kontseiluaren ez-ohiko eta premiazko bileran proposamen zehatzak aurkeztu ditugu. Besteak beste, eskatu dugu Udalak enpresa honen jabetza Eusko Jaurlaritzako EKPr (Euskadiko Kirol Portuak) lagatzea irtenbide egonkor bat aurkitu arte; eta kanpoko enpresa independente bat kontratatzea, azken urteetako kudeaketaren eta lehiaketa-prozesuaren inguruko ikerketa sakona egiteko. Horrez gain, zuzendaritzaren dimisioa eskatu dugu, aholkularitza juridikoaren aldaketa abian jartzea proposatu dugu, eta azken urteetako ko-

munikazio eta dokumentazio guztia gardentasunez eskuragarri jartzeko eskaria luzatu dugu.

Argi dugu Getxoko Kirol Portuaren kudeaketa txarrak ez duela getxoartzaren ongizatean eragin behar, izan ere, El Abra-Getxo Kirol Portua SAREN kapitalaren %67a Getxoko Udalaren esku dago. Ez dugu onartuko kudeaketa arduragabe eta inefiziente baten ondorioak herritarrek pairatzea. Getxoartzarrok beste lehentasun batzuk ditugulako, lanean jarraituko dugu hori hala izan dadin.



GARDENTASUN-GABEZIA GETXOKO KIROL-PORTUAREN KUDEAKETAN

Getxoko PSE-EE **kezkatuta dago** El Abra-Getxo Kirol Portuaren egoeraren kudeaketak duen **opakutasun eta gardentasun-gabeziagatik**. Enpresa emakidatunari emango zaion 1,3 milioi euroko kalte-ordainaren aurrean, **gardentasunik handiena eskatzen dugu**. **Biztanleen dirua da, eta, horregatik, erabaki hori bermatzeko kanpoko txosten tekniko eta independentea eskatzen dugu.**

Enpresari kalterik egin bazaio, norbaitek argi eta garbi azaldu behar ditu horren arrazoiak eta erantzukizunak. Gogorazi nahi dugu gure taldeak iragan irailaren 24an eskatutako informazioa **ez zutela eman hilabete igaro zen arte**, eta soilik aurrez aurre aztertze aukerarekin. Sozialistok ez gaituzte kontuan izan **informazioa emateko, alderatzeko ezta** Portuaren etorkizunean garrantzi

itzela izango duten gaiak erabakitze ere. Gure ustez, Kirol Portua **Getxoko eta Bizkaiko biztanleentzako proiektua izan behar da**, familien aisialdirako eta denbora librerako espazio estrategikoa. PSE-EE ez dago ados PNV-EAJk babestutako **itsas-bidai turismoa handitzearen aldeko apustuarekin**, eta beste eredu bat proposatzen dugu: kalitatezko turismo birsortzailea eta jasagarria.

Getxoko auzokideak hegazkinen zarategatik kezkatuta ez da kasualitatea: Getxo gainetik igarotzen den aire-zirkulazioa gero eta handiagoa da, eta Gobernuak eta Aenak bideratu nahi duten aireportuaren hedapenak larriagotu egingo luke. Podemosen uste dugu, klima-krisi betean, ez dela egokia eta Udalarik eskatzen diogu proiektua atzera botata, auzokideen ongizatea babestu eta zarataren kontrako neurriak sustatu ditzala.



AIREPORTUA HANDITZEA? EZ, ESKERRIK ASKO